



# ZABOR-KONTAINERREI BURUZKO HERRI-KONTSULTAREN BALDINTZAK

## HITZAURREA

Jadanik bada denbora udalerrian eta, bereziki, udalbatzan hiri-hondakinen bilketari buruzko eztabaida piztu eta zabaldu zela. Zehazki, herritarrek hondakinak botatzeko eta ondoren udal-zerbitzuek jaso eta eraman ahal izateko dauden zabor-ontziak dira eztabaidaren iturria. Hain zuzen, gaur egun udalerrian ezarrita dagoen lurpeko zabor-ontzien sistemak sortzen ditu desadostasunak. Hala, batetik, batzuek zalantzan jartzen dute sistema efikaza ote den, eta, bestetik, zabor-ontzi batzuen egoera ikusirik (hondakinak pilatzea, hezetasuna, etab.), zalantzak sortzen dira sistemaren osasungarritasunari buruz ere.

Hala eta guztiz ere, sistemak baditu bere alde onak ere: kalean espazio gehiago sortzen da, ez dago usain txarrik, irisgarriagoak dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, zaborra ez da ikusten, etab.

Eztabaida hori sortu zenez geroztik, udalbatzak zenbait pauso eman ditu informazio gehiago izateko eta gaur egungo zabor-bilketako zerbitzuaren sistemari buruz ikuspegi osoagoa izateko, haren alde positibo eta negatibo guztiekin.

Bestalde, 2016ko martxoaren 8an, udalbatzarrak mozio hau onetsi zuen:

“Lasarte-Oriako Udalbatzarrak honako hau erabakitzen du:

1. Udal-gobernuari eskatzea lanean jarrai dezala gure herriko birziklapen-tasa handitzen joan dadin, eta hartarako beharrezkoak diren neurriak har ditzala.
2. Udal-gobernuari eskatzea azterketa tekniko objektibo bat egin dezala udalean dauden lurpeko zabor-ontzien egoerari buruz, ontzi horiek eragin ditzaketan arazoei buruz eta egon daitezkeen konponbide alternatiboei buruz.
3. Zerbitzu Publikoen Batzordeari eskatzea egindako azterketa hori analiza dezala eta, hartara, zerbitzuaren etorkizunari buruz ondoriorik egokienak atera ditzala udal-talde guztien artean.”

Geroztik, beharrezkotzat jo da parte-hartezko prozesu bat aurrera eramatea, hartara herritar guztiek, informazioa jaso eta irtenbide posibleak eztabaidatu ondoren, botoa eman dezaten gaur egungo sistemarekin jarraitzeari buruz.

Udal-gobernuak borondate osoa du udalbatzarrak erabakitakoa aurrera eramateko, eta asmo horrekin proposatzen du zein bidetatik joango diren parte-hartezko prozesu horretan bete beharreko prozedurazko formalitateak eta zein baldintza bete beharko dituzten udalerrri honetako herritarrek prozesu horretan parte hartu ahal izateko.

Alde horretatik, kontuan izan behar da, indarrean dagoen eta aplikatzekoa den legeriaren arabera, administrazio lokalen arloan, baldintza jakin batzuk bete behar direla mota horretako kontsultak egin ahal izateko. Hortaz, parte-hartezko prozesu hori zein erregimenetan egingo den taxutzeko eta diseinatzeko orduan, oinarritzko arau horiei –estatu nahiz autonomia mailakoak– men egitetik abiatu behar da, eta, arau horiek betez gero, udalbatzek ahalmena dute prozesu horiek garatzeko eta osatzeko. Horixe da testuinguru honen xedeetako bat:



legeria horrek udalbatzei emandako ahalmenak erabiliz, hiri-hondakinen bilketa-sistemari eta, zehazki, herritarrek hondakinak uzteko moduari buruz parte hartzeko prozesuan jarraitu beharreko erregimena diseinatzea.

*Estatuko legeriari dagokionez, Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 71. artikuluan arautzen da gai hori: "Estatuko eta komunitate autonomoko legeriarekin bat etorritik, estatutuak horretarako eskumena ematen dionean, alkateek, osoko bilkuraren gehiengo osoak hala erabaki ondoren eta Nazioko Gobernuak baimena eman ondoren, herri-kontsulta egin ahalko dute udalaren eskumenekoak diren eta herritarren interesetarako garrantzi berezia duten gai lokalei buruz, ogasun lokalari buruzkoak izan ezik."*

*Euskadiko Instituzio Lokalei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 80., 81. eta 82. artikuluetan jasotzen da legeria autonomikoa. Artikulu horietako bakoitzean kontsulta-mota bat arautzen da (EAEJANren 2018-5-2ko epaia, 157/2018 zk., 1012/2017; EDJ 2018/77716). Epaia horretako irizpideei jarraituz, kontsulta hau 80. artikuluan araututakoen motakoa izango litzateke:*

*"1. Erregimen lokaleko oinarrizko legeriarekin bat, alkateek, osoko bilkurak gehiengo osoz hala erabaki ondoren eta Estatuko gobernuaren baimenarekin, herritarren edo komunitatearen interesentzat garrantzi handia duten gai buruzko iritzia galde diezaiokete herriari, baldin eta gaiok udalaren eskumenekoak eta administrazio lokalaren ingurukoak badira. Erregimen lokalari buruzko oinarrizko legerian debekatuta dauden eremuetako gaiez, ordea, ezingo da kontsultarik egin. Erregelamendu bidez ezarriko dira prozedurak, baldintzak eta bermeak, lege honetan ezarritakoaren arabera.*

*2. Udalaren araugintzarako ahalmenaren bitartez, eta lege honetan aurreikusitakoarekin eta erregelamenduetan ezartzen denarekin bat etorritik, kontsulta horiek nola gauzatu garatuko da.*

*3. Alkateak egingo ditu mota horretako kontsultetarako deialdiak, osoko bilkurak hala erabaki ondoren. Erabaki horretan honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez: kontsulta-gai den xedapen, politika edo erabaki publikoaren testu osoa, kontsulta-gai diren galderak eta kontsulta noiz egin behar den. Kontsultaren deialdia kasuan kasuko lurralde historikoaren buletin ofizialean argitaratu eta hurrengo 90 egun eta urtebete artean egin beharko da.*

*4. Udal-talde politikoen ekimenak gorabehera, lehenengo paragrafoan aipatzen diren herri-kontsulten eskaerak osoko bilkuraren erabakipean jarri beharko dira, abiapuntua herritarren ekimena izan bada. Udalerriak 5.000 biztanle baino gehiago baditu, erroldatutako auzotarren gutxienez % 10ek sinatu beharko dute ekimena, eta 5.000 biztanle edo gutxiago baditu, auzotarren % 20k. Hori eginez gero, udalak tramitazioko prozedura irekiko du eta prozedura zehaztuko.*

*5. Salbuespen gisa, kontsulta-prozesuaren xede den gaiaren arabera, udalerrian bizi diren atzeritarrek eta bozketa hasten den egunean gutxienez 16 urte beteak dituzten adingabeek parte hartu ahalko dute herri-kontsulta horietan. Kasu honetan, hautesleen errolda biztanleen udal-erroldaren bidez osatuko da, eta entitate lokaleko idazkariaren eskumena izango da egokitze hori egitea.*

*6. Kontsultak lotesleak izango dira, betiere erabat edo parte batean hori egitea eragotziko duen lege-arauren bat badago."*



Euskadiko lege hori dela-eta, Lurralde Administrazioetarako Estatuko Idazkaritzak ebazpena eman zuen 2017ko otsailaren 3an. Ebazpen horren bidez argitaratu zen Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arteko bitariko lankidetzatza-batzordeak 2016ko apirilaren 7ko Euskadiko Institutuzio Lokalen 2/2016 Legea dela-eta egindako akordioa. Ebazpen horrek honako hau dio aipaturiko artikuluari buruz:

*"H) 2016ko apirilaren 7ko Euskadiko 2/2016 Legearen 80. artikuluko 5. atalaren arabera (EDL 2016/32961), «Salbuespen gisa, kontsulta-prozesuaren xede den gaiaren arabera, udalerrian bizi diren atzerritarrek eta bozketa hasten den egunean gutxienez 16 urte beteak dituzten adingabeek parte hartu ahalko dute herri-kontsulta horietan. Kasu horretan, hautesleen errolda biztanleen udal-errodaren bidez osatuko da, eta entitate lokaleko idazkariaren eskumena izango da egokitze hori egitea.»*

*Bi aldeek ulertzen dutenez, konstituzionaltasunaren blokea eta estatu mailako araudi aplikagarria kontuan izanda, Legearen 80. artikuluko 5. atal hori kontsulta sektorialeki edo lurralde-esparru mugatuko kontsultei aplikatzen zaie, zeinetan hartzaileak ez baitira lurralde-esparru jakin batean sufragio aktiboko eskubidea aitortua duten herritarrak, hau da, lurralde-esparru bateko hautesle-multzoa. Hortaz, 80.5 artikuluko kasuetan, Legearen 81. artikuluan aurreikusitako erregimena aplikatzen dela ulertu behar da.*

*I) Bi aldeek ulertzen dutenez, 2016ko apirilaren 7ko Euskadiko 2/2016 Legearen 80. 6 artikulua (EDL 2016/32961) berariaz babesten du oinarrizko legeria; izan ere, artikulua horretan herri-kontsultei buruz xedatzen denez, «Kontsulta horiek lotesleak izango dira, betiere ez baldin badago lege-arauren bat kontsulta osorik edo zati batean egitea eragozten duena».*

*Hori dela eta, bi aldeek ulertzen dute 80.6 artikulua interpretatzeko eta aplikatzeko orduan, kontuan izan behar direla Erregimen Lokaleko Oinarrizko Arautzen Dituena 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (EDL 1985/8184) xedapenak eta, bereziki, Lege horretako 69.2) eta 71. artikulua. Hortaz, oinarrizko arau horiek aldatzen ez diren bitartean, era horretako kontsultek izaera loteslea izan ahalko dute, eta udalbatzarrak izango du ahalmena arlo horretako erabakiak hartzeko."*

Bestalde, udal honek onetsia du herritarren parte-hartzeari buruzko bere erregelamendu municipalak, zeinaren 21. artikulua aipaturiko Euskadiko Lege horren 80. artikulua ere eduki bera baitu.

## 1. Xedea

Baldintza hauen helburua da Lasarte-Oriako udalerriko hondakinen zabor-ontzien egungo ereduari buruzko herri-kontsultaren prozedura-markoa diseinatzea, Erregimen Lokaleko Oinarrizko Arautzen Dituena 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Eusko Legebiltzarraren Euskadiko Institutuzio Lokalei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta Lasarte-Oriako Herritarren Partaidetzari buruzko Erregelamendu Municipalak xedatutakoa betez.



## 2. Kotsultaren esparrua

Baldintza hauek Lasarte-Oriako udalerrian izango dira aplikatzekoak, eta zabor-ontziei buruzko herri-kontsulta aurrera eramateko bakarrik.

## 3. Kotsultaren instrukzio-organoa

Barne-erregimenaren, Herritarren Parte-hartzearen eta Gardentasunaren Batzordea izango da kotsultaren instrukzio-organoa, eta batzorde horren bidez proposatuko zaizkio alkatetzari kontsulta aurrera eramateko hartu beharreko neurriak, betiere hemen adierazitako baldintzak kontuan hartuta.

## 4. Botoa emateko legitimatuta dauden pertsonak

Herri-kontsultan parte hartzeko eskubidea izango dute 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak, baldin eta botoa emateko unean beteak badituzte eta kotsultaren deialdia egiten den unean Lasarte-Oriako udalerrian erroldatuta badaude.

## 5. Galderaren formulazioa

Galdera labur, argi eta sinple baten bidez egingo da kontsulta, herritarrek haren irismena ondo ulertu ahal izateko moduan, emandako aukeren artean bat bozkatu ahal dezaten.

Hau izango da galdera:

Zer egin behar du Udalak gaur egungo lurpeko zabor-ontziekin?

- Mantendu
- Kendu

## 6. Izaera loteslea

Kotsultaren emaitza loteslea izango da, baldin eta botoa ematera deitutako herritarren % 30ek gutxienez bozkutzen badute, eta erabakia gehiengo soilaren mende geratuko da, betiere ez badago hori egitea erabat edo partzialki galarazten duen lege-araurik.

## 7. Botoa emateko moduak

Herri-kontsultan, erregelamendu honetan ezarritako bozketa-moduen bidez antolatuko da parte-hartzea; botoa unibertsal, berdina, askea, zuzena eta sekretua izango da.

Botoa presentziala izango da, eta kontsulta-prozesuan ahalik eta parte-hartzerik eta efizientziarik handiena lortzeko ahalegina egingo da.

Hautesleak eskainitako bi aukeretako bat markatu beharko du. Horietako bat ere markatzen ez bada edo boto-azala hutsik badago, boto zurizat hartuko da.

Baliogabeak izango dira deialdirako ezarritako ereduarekin bat ez datozen boto-orriak, aldaketak izan dituztenak edo ezarritako erantzunekin bat ez datozenak.



## 8. Botoa emateko epea

Bozketa presentziala kontsultarako jarritako mahaietan egingo da, deialdiko ebazpenean adierazitako egunetan eta zehazturiko epearen eta ordutegiaren barruan.

Erroldako zerrendan egiaztatuko dira inskripzioa.

Gutun itxi batean sartutako boto-papera boto-ontzian sartuz emango da botoa.

Botazio presentzialaren euskarri gisa, sistema informatiko bat erabiliko da.

Irisgarritasun unibertsala bermatze aldera, kontuan izango da irisgarritasunaren arloko legeria.

## 9. Kontsulta-mahaiak

Botazioa aurrera eramateko, hainbat mahai (bost gutxienez) eratuko dira.

Deialdiari buruzko ebazpenean zehaztuko da mahaien eraketa.

Gutxienez bi lagunek (udaleko langileak) osatu beharko dituzte, eta horietako bat izango da lehendakaria.

Kontsulten instrukzio-organoak hautatuko ditu mahaietako kideak, boluntario aurkeztutako udaleko langileen artean egindako zozketaren bidez.

Udaleko talde politiko bakoitzak pertsona bat proposatu ahalko du mahaiari ikuskatzaile jarduteko.

## 10. Kontsulta-mahaiaren funtzioak

Hauek dira kontsulta-mahaiaren funtzioak:

- Erregelamendu honen arabera parte hartzeko eskubidea duten pertsonen laguntza ematea.
- Parte hartzera deitutako pertsonak identifikatzea.
- Botoa ematera deitutako pertsonen zerrenda zaintzea, botoa emateko baimena ematea eta parte-hartzaileen erregistroa eramatea.
- Erantzunen behin-behineko kontaketa publikoki egitea, eta emaitza aktan jasotzea, izandako gorabeherekin batera.
- Kontsulta aurrera eramateko beharrezkoa den materiala egon dadin zaintzea.
- Kontsulten instrukzio-organoak agindutako beste batzuk.

## 11. Boto-kontaketa

Botoa emateko epea amaitutakoan, kontsulta-mahaiari dagokion emandako botoen kontaketa egitea eta kontsultako galderaren emaitza zein izan den adieraztea.

Kontaketa publikoa izango da.

Aktaren kopia bat emango zaio eskatzen duen ikuskatzaile bakoitzari.



## **12. Emaitzen aldarrikapena**

Kontaketa amaitutakoan, mahaietako lehendakari dihardutenek kontsulten instrukzio-organoari emango diote bozketaren akta, bai halaber izandako gorabeheren lista eta horien inguruan hartutako erabakiena.

Alkateak ekitaldi publiko baten bidez aldarrikatuko ditu emaitza ofizialak, horiek jasotzen dituenetik gehienez 7 eguneko epean.

## **13. Udalaren posizionamendua emaitzari buruz**

Botazioaren emaitza ebazten denetik edo botazioan izandako gorabeherak ebazten direnetik 90 egun naturaleko epean, organo eskumendunak publikoki eta modu arrazoituan jakinaraziko du nola inplementatuko den kontsultaren emaitza gobernuaren jardunbidean.

## **14. Kontsultari buruzko informazioa**

Lasarte-Oriako Udalak parte hartzeko prozesuaren eta horren arrazoiari berri emango die herritarrei, euskarri fisiko nahiz informatikoen bidez (web-orriak, udal-bandoak, triptikoak, etab.). Euskarri horietan, transmititu beharreko informazioa egiazkoa eta neutrala izango da, eta erraz ulertzeko moduko hizkerarekin emango da.